



**UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA.
2023KO IRAILAREN 21EKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Honako batzarkide hauek bertaratu dira:

Aholkulari juridikoa

Alejandro Castro Ubetagoyena.

Aizarnazabalgo ordezkaria

Mari Karmen Arregi Agirre.....(% 0,80)
Ana Isabel Lizarralde Ibar.....(% 0,79)

Ez dira etorri honako batzarkide hauek:

Aizarnazabalgo ordezkaria

Unai Alberdi Arakistain.....(% 0,79)

Azkoitiko ordezkariak

Ana Azkoitia Urteaga (% 11,91)
Asier Altuna.....(% 11,91)
Jose Joakin Etxaniz.....(% 11,90)

Beizamako ordezkaria

Unai Barrutibengoa Olazabal.....(% 0,14)

Azpeitiko ordezkariak

Joanes Amenabar Altuna.....(% 15,53)
Nagore Alkorta Elorza.....(% 15,53)
Jabier Altuna Larrañaga.....(% 15,53)

2023ko irailaren 21ean, arratsaldeko 18:10etan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ezohiko osoko bilkura bildu da.

Beizamako ordezkariak

Aitor Arruti Arranz.....(% 0,14)
Eneko Oregi Ziurraga.....(% 0,14)

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Bidania-Goiatz, Errezil eta Zestoako udalerriek osatzen dute Mankomunitatea, eta bertaratu diren ordezkariak toki-erakundearen % 99,10a ordezkatzan dute. Mankomunitatearen estatutuen 10.6 artikulua honako hiru betekizun hauek ezartzen ditu Batzar Nagusiaren lehenengo deialdia baliozkoa izateko:

Bidania-Goiatzeko ordezkaria

Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta.....(% 0,54)
Jose Migel Mendizabal Arnaez.....(% 0,54)
Josune Landa Gurruchaga.....(% 0,54)

Errezilgo ordezkariak

Luis Maria Arzallus Amenabar.....(% 0,58)
Nekane Zinkunegi Barandiaran.....(% 0,58)
Joseba Iñaki Labaka Beristain.....(% 0,58)

- 1) Batzarkideen erdia gehi bat egotea.
- 2) Batzarkideen botoen erdia gehi bat ere izatea.
- 3) Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere.

Zestoako ordezkariak

Mikel Arregi Urrutia.....(% 3,85)
Zigor Plazaola Anduaga.....(% 3,84)
Garikoitz Mendizabal Etxeberria.....(% 3,84)

Hiru baldintza horiek lehenengo deialdian bete dira.

Idazkari kontu-hartzailea

Olatz Eizagirre Orbegozo

Ingurugiro Etxea Fundazioaren zuzendaria

Orkatx Goenaga Ormazabal



Lehendakariak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita (% 94,69ko quoruma zegoela egiaztatu ondoren), eta sei udalerriko ordezkariak bertaratu direla adierazi eta gero, Batzar Nagusiko bilkurari hasiera eman dio. Jarraian, batzarkideek deialdiaren gai-zerrendan jasota dauden gaiak jorratu dituzte.

GAI-ZERRENDA

1. 2023ko irailaren 6ko Batzar Nagusiko ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.

Inork besterik adierazi ez duenez, botazioa egin ondoren bertaratutakoek aho batez onartu dute 2023ko irailaren 6ko Batzar Nagusiko ohiko osoko bilkuraren akta, Urola Erdiko Mankomunitatearen boto haztatuaren 94,69ko portzentajeaz.

2. Tokiko ordezkariak kargua hartzea.

Aitor Arruti Zarranz eta Eneko Oregi Ziurraga jaunek kargua hartzeko legediak ezartzen duen zin egiteko formula onartzen du, bere karguaren izaera osoa hartzen duelarik, honela, Urola Erdiko Mankomunitateko ordezkarien batzarkide kargua hartzen duelarik

3. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren dedikazioa eta ordainsariak onestea.

Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren dedikazioa eta ordainsariak onesteko proposamena.

AURREKARIAK

1. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2023ko irailaren 6an egindako proposamena, Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren dedikazio-erregimenari eta berari dagozkion ordainsariei buruzkoa:

“UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO KARGUEN DEDIKAZIO ERREGIMENA ETA ORDAINSARIAK

2023ko irailaren 6an eratu zen Urola Erdiko Mankomunitateko Ordezkarien Batzarra eta Lehendakari eta Lehendakari ordearen karguak hautatu zituzten. Eraketaren ondoren, beharrezkoa da Lehendakariaren ordainketa eta arduraldia zein dedikazioa eguneratzea.

Hortaz, honako proposamen hau luzatzen dut:

Dedikazioa izango duen kargua eta ordainsaria:

Lehendakaria: Joanes Amenabar Altuna J.



Dedikazioa: Partziala %50

Ordainsaria: 27.500 €ko soldata gordina urtean

Eraginak: Dedikazio eta ordainsarien araubideak 2023ko irailaren 6tik aurrerako eragina izango du.

Ordainsariak eguneratuko dira mankomunitateko langileen ordainsariak-izaera orokorrarekin-eguneratzen diren portzentaje berdinarekin, abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauak edo arau hori ordezkatzeko duen arauak ezarritako mugekin.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta ematea 2023/09/07tik aurrerako eraginak izateko eta Urola Erdiko Mankomunitateak enpresa kuoten ordainketa bere gain hartzeko.

Epealdia: 2023-2027ko agintaldia

Azpeitian, 2023ko irailaren 15ean

Lehendakariak: Joanes Amenabar Altuna”

2. Idazkari Kontu hartzaileak 2023ko irailaren 15ean egindako txostena aldekoa da. Lehendakariaren proposamenak ez ditu gainditzen ordainsarien mugak - %50 (42.915,98 €)-, ezta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. bis. atalak xedatutako mugak ere.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Eskumena. Toki Araubidearen Oinarriak aratzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan jasotakoarekin ados, Batzar Nagusiari dagokio dedikazio eskusibo edo partziala duten karguen ordainsariak ezartzea, baita horien dedikazioaren erregimena ere, Estatutuen 11.2 atalak xedatutakoari jarraiki, proposamena onartzeko behar da bertaratutako kideen botoen **gehiengo soila**.

II. Araubidea

1. Urola Erdiko Mankomunitateko estatutuak, 2011ko otsailaren 11n egindako bileran, behin betikoz onartutakoak (GAO.n: 2011/06/09an argitaratutakoak, 109. zk.an)
2. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
3. 7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019. urterako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen.
4. 2014ko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.

III. Gaiaren azterketa

1. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian, «euskal foru araubideari» buruzkoan, foru erakunde eta organoei ematen die lege bereko 75 bis artikulua Estatuari gordetzen dion ahalmena aipatu ordainsarien mugak zehazteko. (Estatutuan ordainsari-mugak daude indarrean 2019. urtearen hasieratik).



2. 2014ko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, 5.1 artikuluan ezartzen duenez, "asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorra onartzeko urteroko foru arauan zehaztuko dira".

3. 2022ko abenduaren 27ko GAOn (244. zk) argitaratu zen 6/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023. urterako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen. 7. Xedapen Gehigarrian zehazten dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak 2023rako.

"1. Asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak ondorengo taularen arabera izango dira, kanpoan utzita, hala balegokio, zerbi berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioek jaso ditzaketen hirurtekoak, eta kontuan izanda, besteak beste, toki entitatearen izaera eta biztanleria

<i>Biztanleak / Habitantes</i>	<i>Erreferentzia / Referencia</i>	<i>Urteko zenbatekoa / Cuantía anual</i>
50.001etik aurrera A partir de 50.001	Eusko Jaurlaritzako sailburua %10 Consejero/a del Gobierno Vasco 10%	90.880,90 €
20.001etik 50.000ra De 20.001 hasta 50.000	Eusko Jaurlaritzako sailburua %15 Consejero/a del Gobierno Vasco 15%	85.831,96 €
10.001etik 20.000ra De 10.001 hasta 20.000	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria Director/a del Gobierno Vasco	77.928,90 €
5.001etik 10.000ra De 5.001 hasta 10.000	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria %10 Director/a del Gobierno Vasco 10%	70.136,01 €
2.001etik 5.000ra De 2.001 hasta 5.000	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria %15 Director/a del Gobierno Vasco 15%	66.239,57 €
2.000 arte Hasta 2.000	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria %25 Director/a del Gobierno Vasco 25%	58.446,68 €

3. *Dedikazio partzialei aplikatu beharreko gehieneko mugak honela kalkulatu dira: 1. atalean aurreikusitako taularen arabera dagozkien toki entitateak erabakitako dedikazio ehunekoak aplikatuta.*

Foru arau hau 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dago.

4. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. hir. Atalak xedatutakoaren arabera, 20.001 eta 35.000 biztanle artean dituzten udalerrietako udaletan, gehienez ere, hamar kidek gauzatu ahalko dituzte beren zerbitzuak dedikazio eskusiboan.

5. Urola Erdiko Mankomunitateko toki erakundearen esparruan 32.523 biztanle daude, EIN-INEk argitaratutako datuen arabera, abenduaren 14ko 1458/2018 Errege Dekretuak onarturikoak. Hortaz, 2022ko abenduaren 27ko GAOn (244. zk) argitaratu zen 6/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023. urterako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen, xedatutakoaren arabera, Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren gehieneko ordainsaria 85.831,96 €koa da. Hortaz, proposamenak ez ditu gairatzen ordainsarien mugak - %50 (42.915,98 €)-, ezta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. bis. atalak xedatutako mugak ere.



6. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. Atalak xedatutakoaren arabera, alta eman beharko zaio Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean eta Urola Erdiko Mankomunitateak bere gain hartuko du enpresa kuoten ordainketa.

Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiari proposatzen diot onartzea honako

ERABAKI HAU:

LEHENGOA. Ezartzea dedikazioa izango duen kargua eta ordainsaria:

Lehendakaria: Joanes Amenabar Altuna J.

Dedikazioa: Partziala %50

Ordainsaria: 27.500 €ko soldata gordina urtean

Eraginak: Dedikazio eta ordainsariak 2023ko irailaren 7etik aurrerako eragina izango dute.

Ordainsariak eguneratuko dira mankomunitateko langileen ordainsariak-izaera orokorrekin eguneratzen diren protzentaje berdinarekin, abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauak edo arau hori ordezkaturiko duen arauak ezarritako mugekin.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta ematea aurrerako eraginak izateko eta Urola Erdiko Mankomunitateak enpresa kuoten ordainketa bere gain hartzeko.

Epealdia: 2023-2027ko agintaldia

BIGARRENA. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 atalak xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA. Azpeitiko Udalari jakinaraztea (Langileriaren departamendua).

Azpeitian, 2023ko irailaren 15an.

LEHENDAKARIAK
Joanes Amenabar Altuna

Bozketa egin aurretik, Azkoitia andereak, Mankomunitateko Lehendakari eta Lehendakari-ordea hautatzeko erari buruz, hausnarketa bat egin behar dela iritzi dio, gaiak eztabaida sakon bat eginez.

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 97,91

Aizarnazabalgo ordezkariak (%1,59): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Ana Isabel Lizarralde A. (%0,79)



Azkoitiko ordezkariak (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (%11,91), Asier Altuna J. (%11,91), Jose Joakin Etxaniz J. (%11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (%15,53) Jabier Altuna Larrañaga J. (%15,53).

Beizamako ordezkariak (%0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Eneko Oregi Ziurraga J. (0,14).

Bidania-Goiatzeko ordezkariak (% 1,62): Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54), Jose Migel Mendizabal Arnaez J. (%0,54) Josune Landa Gurruchaga A. (%0,54).

Errezilgo ordezkariak (%0,58): Nekane Zinkunegi Barandiaran A. (0,58).

Zestoako ordezkariak (%11,53): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (%3,84), Garikoitz Mendizabal Etxeberria J. (3,84).

Kontra: % 0,00

Abstentzioa: % 0,00

Berlaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:

LEHENGOA. Ezartzea dedikazioa izango duen kargua eta ordainsaria:

Lehendakaria: Joanes Amenabar Altuna J.

Dedikazioa: Partziala %50

Ordainsaria: 27.500 €ko soldata gordina urtean

Eraginak: Dedikazio eta ordainsariak 2023ko irailaren 7etik aurrerako eragina izango dute.

Ordainsariak eguneratuko dira mankomunitateko langileen ordainsariak-izaera orokorrarekin eguneratzen diren protzentaje berdinarekin, abenduaren 23ko 6/2022 Foru Arauak edo arau hori ordezkaturako duen arauak ezarritako mugekin.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta ematea aurrerako eraginak izateko eta Urola Erdiko Mankomunitateak enpresa kuoten ordainketa bere gain hartzeko.

Epealdia: 2023-2027ko agintaldia



BIGARRENA. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 atalak xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA. Azpeitiko Udalarri jakinaraztea (Langileriaren departamendua).

4. Urola Erdiko Mankomunitateko bileren maiztasuna eta ezaugarrien berri ematea eta bilera eguna onestea

Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena, bileren maiztasuna eta ezaugarrien berri ematea eta bilera eguna zehaztekoa.

AURREKARIAK

1. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2023ko irailaren 15ean egindako proposamena, Urola Erdiko Mankomunitateko bileren maiztasuna eta ezaugarriei buruzkoa:

“BILEREN MAIZTASUNA ETA EZAUGARRIAK ZEHAZTEKO PROPOSAMENA

2023ko irailaren 6an bilera egin zen, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar berria eratzeko. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Entitateko Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren, 38. artikuluaaren arabera, Batzar Nagusiak egin beharreko bilera arrunten maiztasuna zehaztea dagokio.

Hala ere, Estatutuen 10. atalak arautzen du “Batzar Nagusiaren bilerak”; hortaz, proposamenak aipatzen dituen maiztasunari, bilerak egiteko zein erabakiak hartzeko quorum- ak estatutuetan (10. eta 11. ataletan) jasota daude.

PROPOSAMENA

LEHENA.- Batzar Nagusiak egin beharreko ohiko bilerak bi hilabete behin, lehenengo ostegunean deialdian ezarritako tokian, egingo dira, arratsaldeko seietan lehenengo deialdian, eta, ordu erdi geroago, bigarren deialdian.

BIGARRENA.- Lehendakari baimena ematea, bere inizatibaz edo udal batek horrela eskatuta eta arrazoituta, ohiko batzarra egiteko data eta ordua aurreratzeko edo atzeratzeko, gehienez aste bat, nahiz eta egun berria aurrez ezarritako dataren hilabetekoa ez izan. Dena dela beti ere ohiko izaera izango du.

HIRUGARRENA.- Bilera ohikoa egiteko quorum-a:

1. deialdia	2. deialdia
12 batzarkide %51 boto 4 udalerrri	3 batzarkide %51

(Lehenengo eta bigarren deialdien artean ordu erdi egongo da)



LAUGARRENA.- Erabakiak hartzeko quorum-a:

Arau orokorra	Arau berezia:
Bertaratutakoen gehiengo soila	4 udalerrri, %51 ordezkaritza, honako erabaki hauek hartzeko: 1. Mankomunitateko udalerrri berriak onartzea 2. Mankomunitatearen egoitza soziala aldatzeko eskumena 3. Mankomunitatea desegitea eta haren ondasunak, eskubideak eta zorrak likidatzea 4) Zerbitzuak kudeatzeko erak onartzea 5) Mankomunitateko arau gisa ezarriko diren barne araudia edo erregelamendua onartzea; eta sor daitezkeen batzordeen eraketa, osaketa eta barne-erregimeneko araudia onartzea. 6) <u>Aurrekontua</u> , aurrekontua erabiltzeko oinarriak eta <u>Kontu Orokorra</u> onartzea; bai eta Mankomunitateak ondarea besterentzea eta eskuratzeko egingo dituen jarduerak onartzea ere. 7) Mankomunitateko udalen ekarpen-erregimena zehaztuko duten arauak onartzea. 8) Kreditu-eragiketak kontratatzea 9) <u>Mankomunitateko lehendakaria</u> eta <u>lehendakariordea izendatzea</u> eta kargutik kentzea 10) Beste administrazio batzuekin egindako <u>lankidetzak hitzarmenak edo akordioak</u> onartzea 11) <u>Obrak, zerbitzuak, hornidurak</u> eta sektore publikoko kontratuen legean araututakoak <u>kontratatzeko</u> eta jarduera hobeto kudeatzeko kontratu pribatuak egitea, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera. 12) Likidazioaren kontua onartzea, Mankomunitateko kide bat Mankomunitatetik irteten bada

Azpeitian, 2023ko irailaren 15ean

Lehendakariak: Joanes Amenabar Altuna”

2. Idazkari Kontu hartzaileak 2023ko irailaren 15ean egindako txostena aldekoa da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Eskumena: Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Entitateko Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren, 38. artikulua arabera, Batzar Nagusiak egin beharreko bilera arrunten maiztasuna zehaztea dagokio.



Estatutuen 11.2 atalak xedatutakoari jarraiki, proposamena onartzeko behar da bertaratutako kideen botoen **gehiengo soila**.

II. Araubidea

1. Urola Erdiko Mankomunitateko estatutuak, 2011ko otsailaren 11n egindako bileran, behin betikoz onartutakoak (GAO.n: 2011/06/09an argitaratutakoak, 109. zk.an)
2. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
3. Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Entitateko Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia

III. Gaiaren azterketa:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2a artikulua xedatutakoari jarraituz, Udaltzara Osoak-Batzar Nagusiak- egin beharreko ohiko bileren maiztasuna biztanleen arabera izango direla aurreikusten du.

“a) Osoko bilkurak hilero egingo du gutxienez ohiko bilkura 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaletan, eta probintziako diputazioetan; bi hilabetetik behin egingo du 5.001 biztanletik 20.000 biztanle arteko udalerrietako udaletan; eta hiru hilabetetik behin, 5.000 biztanle arteko udalerrietan “

Urola Erdiko Mankomunitateko toki erakundearen esparruan 32.145 biztanle daude, EIN-INEK argitaratutako datuen arabera, abenduaren 14ko 1458/2018 Errege Dekretuak onarturikoak. Beraz, 32.523 biztanle dituzenez hilabetean behin bilera egitea legokioke.

Halere, Estatutuen 10. atalak zera dio: Batzar Nagusiaren bilerak.

“1. Batzar Nagusia bilduko da alde aurretik bilerarako deia eginda. Lehendakariak bilerarako dei arrunta egingo du hilean bi aldiz. (Akatsa: “bi hilabetean behin” esan nahi du) Deialdia hiru egun baliodun edo gehiagoko aurrerapenarekin egingo da.

6. Batzar Nagusiaren bilerak baliozko izan daitezten, **lehenengo deialdian eskatuko da batzarkideen erdia gehi bat egotea (beren botoen erdia gehi bat ere izan beharko da), bai eta Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere. Bigarren deialdian botoen erdia gehi bat eskatuko da, edozein delarik ere batzarkide-kopurua, betiere hiru kide edo gehiago baldin badatoz. Gainera, lehendakariak edo lehendakariordeak eta idazkariak edo bere legezko ordezkariak bileran izan behar du nahitaz”.**

Eta 11. atalak zera dio:

“2. Batzar Nagusiaren erabakiak, **oro har, bertan dauden kideen botoen gehiengo soilez hartuko dira, a) puntuaren 2. atala, b) egoitza sozialaren aldaketa, c), d), e), f), g), h), i), j), m) eta n) puntuari buruzko erabakiak hartzeko izan ezik. Erabaki horiek onartzeko, bozkatzeko eskubidea duten kideen botoen gehiengo osoa beharko da. Kasu horietan, gainera, Mankomunitateko udalerrien gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da. Horretarako, joko da Mankomunitateko udalerririk bakoitzak boto bat duela, eta botoa udalerririk bakoitzaren hiru ordezkarien gehiengoak bozkatu duenaren arabera kontatuko da. Mankomunitateko udalerririk baten ordezkarien botoak kontatu eta berdinketa gertatzen bada, udalaren botoa abstentziotzat joko da.**



3. Dena dela, **Mankomunitateko Estatutuak aldatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Mankomunitateko Batzar Nagusiko kide guztien aldeko bozketa**”.

Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiari proposatzen diot onartzea honako

ERABAKI HAU:

LEHENA : Batzar Nagusiak egin beharreko ohiko bilerak **bi hilabetean behin, HILABATE BAKOITIKO lehenengo ostegunean deialdian ezarritako tokian, egingo dira, arratsaldeko seietan lehenengo deialdian, eta, ordu erdi geroago, bigarren deialdian.**

BIGARRENA: Lehendakari baimena ematea, bere inizatibaz edo udal batek horrela eskatuta eta arrazoituta, ohiko batzarra egiteko data eta ordua aurreratzeko edo atzeratzeko, gehienez aste bat, nahiz eta egun berria aurrez ezarritako dataren hilabetekoa ez izan. Dena dela beti ere ohiko izaera izango du.

HIRUGARRENA. Jakinaraztea bilera ohikoa egiteko quorum-a honakoa dela:

1. deialdia	2. deialdia
12 batzarkide %51 boto 4 udalergi	3 batzarkide %51 boto

(Lehenengo eta bigarren deialdien artean ordu erdi egongo da)

LAUGARRENA. Jakinaraztea erabakiak hartzeko quorum-a honakoa dela:

Arau orokorra	Arau berezia
Bertaratutakoen gehiengo soila	4 udalergi, %51 ordezkari, honako erabaki hauek hartzeko: 1. Mankomunitateko udalergi berriak onartzea 2. Mankomunitatearen egoitza soziala aldatzeko eskumena 3. Mankomunitatea desegitea eta haren ondasunak, eskubideak eta zorrak likidatzea 4) Zerbitzuak kudeatzeko erak onartzea 5) Mankomunitateko arau gisa ezarriko diren barne araudia edo erregelamendua onartzea; eta sor daitezkeen batzordeen eraketa, osaketa eta barne-erregimeneko araudia onartzea. 6) Aurrekontua, aurrekontua erabiltzeko oinarriak eta Kontu Orokorra onartzea; bai eta Mankomunitateak ondarea besterentzea eta eskuratzeko egingo dituen jarduerak onartzea ere.



	<p>7) Mankomunitateko udalen ekarpen-erregimena zehaztuko duten arauak onartzea.</p> <p>8) Kreditu-eragiketak kontratatzea</p> <p>9) Mankomunitateko lehendakaria eta lehendakariordea izendatzea eta kargutik kentzea</p> <p>10) Beste administrazio batzuekin egindako lankidetzak hitzarmenak edo akordioak onartzea</p> <p>11) Obrak, zerbitzuak, hornidurak eta sektore publikoko kontratuen legean araututakoak kontratatzea eta jarduera hobeto kudeatzeko kontratu pribatuak egitea, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera.</p> <p>12) Likidazioaren kontua onartzea, Mankomunitateko kide bat Mankomunitatetik irteten bada</p>
--	---

Azpeitian, 2023ko irailaren 15ean.

LEHENDAKARIAK
Joanes Amenabar Altuna

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 99,10

Aizarnazabalgo ordezkariak (%1,59): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Ana Isabel Lizarralde A. (%0,79)

Azkoitiko ordezkariak (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (%11,91), Asier Altuna J. (%11,91), Jose Joakin Etxaniz J. (%11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (%15,53) Jabier Altuna Larrañaga J. (%15,53).

Beizamako ordezkariak (%0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Eneko Oregi Ziurraga J. (0,14).

Bidania-Goiatzeko ordezkariak (% 1,62): Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54), Jose Migel Mendizabal Arnaez J. (%0,54) Josune Landa Gurruchaga A. (%0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,74): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi



Barandiaran A. (0,58) Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (%0,58).

Zestoako ordezkariak (%11,53): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (%3,84), Garikoitz Mendizabal Etxeberria J. (3,84).

Kontra: % 0,00

Abstentzioa: % 0,00

Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:

LEHENA : Batzar Nagusiak egin beharreko ohiko bilerak **bi hilabetean behin, HILABATE BAKOITIKO lehenengo ostegunean deialdian ezarritako tokian, egingo dira, arratsaldeko seietan lehenengo deialdian, eta, ordu erdi geroago, bigarren deialdian.**

BIGARRENA: Lehendakari baimena ematea, bere inizatibaz edo udal batek horrela eskatuta eta arrazoituta, ohiko batzarra egiteko data eta ordua aurreratzeko edo atzeratzeko, gehienez aste bat, nahiz eta egun berria aurrez ezarritako dataren hilabetekoa ez izan. Dena dela beti ere ohiko izaera izango du.

HIRUGARRENA. Jakinaraztea bilera ohikoa egiteko quorum-a honakoa dela:

1. deialdia	2. deialdia
12 batzarkide %51 boto 4 udalerrri	3 batzarkide %51 boto

(Lehenengo eta bigarren deialdien artean ordu erdi egongo da)

LAUGARRENA. Jakinaraztea erabakiak hartzeko quorum-a honakoa dela:

Arau orokorra	Arau berezia
Bertaratutakoen gehiengo soilak	4 udalerrri, %51 ordezkariak, honako erabaki hauek hartzeko: 1. Mankomunitateko udalerrri berriak onartzea 2. Mankomunitatearen egoitza soziala aldatzeko eskumena 3. Mankomunitatea desegitea eta haren ondasunak, eskubideak eta zorrak likidatzea 4) Zerbitzuak kudeatzeko erak onartzea



	<p>5) Mankomunitateko arau gisa ezarriko diren barne araudia edo erregelamendua onartzea; eta sor daitezkeen batzordeen eraketa, osaketa eta barne-erregimeneko araudia onartzea.</p> <p>6) Aurrekontua, aurrekontua erabiltzeko oinarriak eta Kontu Orokorra onartzea; bai eta Mankomunitateak ondarea besterentzea eta eskuratzeko egingo dituen jarduerak onartzea ere.</p> <p>7) Mankomunitateko udalen ekarpen-erregimena zehaztuko duten arauak onartzea.</p> <p>8) Kreditu-eragiketak kontratatzea</p> <p>9) Mankomunitateko lehendakaria eta lehendakariordea izendatzea eta kargutik kentzea</p> <p>10) Beste administrazio batzuekin egindako lankidetzak hitzarmenak edo akordioak onartzea</p> <p>11) Obrak, zerbitzuak, hornidurak eta sektore publikoko kontratuen legean araututakoak kontratatzea eta jarduera hobeto kudeatzeko kontratu pribatuak egitea, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera.</p> <p>12) Likidazioaren kontua onartzea, Mankomunitateko kide bat Mankomunitatetik irteten bada</p>
--	--

5. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan ordezkariak eta horien ordezekoak izendatzea.

Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2023ko irailaren 15ean egindako proposamena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorreko kideak hautatzeko.

AURREKARIAK

Urola Erdiko Mankomunitateak du Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorreko kideak hautatzeko betebeharra.



ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Eskumena

Urola Erdiko Mankomunitatearen Estatutuek eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuek ez dute adierazten nor den Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorreko kideak hautatzeko eskumena duen organoa; halere, eskatutako “ahalik eta pluraltasunik handiena bermatzearren” eta Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 b) atalean oinarrituta (*Osoko Bilkuraren zeregina da onartzea “Udalerriaz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea”*) Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiari dagokio.

Urola Erdiko Mankomunitatearen Estatutuek eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuek ez dute adierazten hautatzeko prozedura edo eskatutako gehiengoa. Hortaz, arau orokorra (gehiengo soil) jarraituko da, Urola Erdiko Mankomunitatearen Estatutuen 11.2 atalean oinarrituta.

II. Araudia

a) Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuak

Hasierakoak: GAO 2007/05/17an, 96. zk.-n argitaratutakoak.

1. aldaketa: Estatutuak, behin betiko testua, Txingudi Kontsortzioan sartu ondorengoa: GAO 2009/07/03an, 123. zk.-n argitaratutakoak.

2. aldaketa: Tarifen onespena. GAO 2010/06/18an, 114. zk.-n argitaratutakoak.

3. aldaketa. Hernanira egoitzaren aldaketa.: GAO 2012/06/27an argitaratutakoak, 122. zk.-n.

4. aldaketa: 2009ko irailaren 21eko epaia betetzeko. GAO 2013/05/06an, 94. zk.-n argitaratutakoak.

5. aldaketa:: 2016. GAO 2016/12/21an, 240. zk.-n argitaratutakoak.

6. aldaketa:: 2017. GAO 2017/09/06an, 170. zk.-n argitaratutakoak.

b) Urola Erdiko Mankomunitatearen Estatutuak (GAO 2011/06/09an, 109. zk.-n argitaratutakoak).

III. Gaiaren azterketa

a) Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuen 11. atalak xedatutakoaren arabera, “2. Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundia Batzar Orokorrean ordezkatuta egongo dira; baita gainerako entitate kontsortziatuak ere, halakorik izanez gero”.



“3. Kontsortzioko kide den tokiko entitate bakoitzari Batzar Orokorrean boto erkatuaz dagokion ordezkari, guztizko portzentajearen barruan kalkulatu da, entitate horretako biztanle kopuruari kontsortziazatutako entitate guztiek batera hartuta duten biztanle kopuruan dagokion portzentajearen arabera.

Eta zenbaki hori zehazteko, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako azken biztanle-zifra ofizialetara joko da, betiere honako estatutu hauetako 12.3 artikuluan aurreikusitako hasierako ordezkari kontuan hartuz”.

b) Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuen 12. atalak xedatutakoaren arabera:

“1. Kontsortzioko kide diren entitateetako ordezkariak osatuko dute Batzar Orokorra. Batzarrerako izendatzen den kide bakoitzeko ordezkari bat aukeratu da, titularrak utz lezakeen lekua betetzeko. Ordezkotasuna, edozein kasutan ere, organo elkargokideko kideei dagozkien eginkizun orokorretara mugatuko da; hau da, ordezkoak ezin izango ditu bete presidenteari, presidenteordeari edota ordeztutakoari berari dagozkion berariazko eginkizunak.

2. Kontsortzio-erakunde bakoitzak hiru ordezkari eta hauei dagozkien ordezkoak izendatuko ditu, Batzarrean ahalik eta pluraltasunik handiena bermatzearren horrela, eta Kontsortzioari jakinarazi egingo dio izendapen akordioa. Batzarkidearen ordezkari izendatu ez den kasuetan, beste korporazio-kide bati esku eman dakioke, berariaz, saio jakin baterako, eta hau onartu egingo du Batzar Nagusiak, baldin eta ordezkari-idazki nominatiboa aurkezten badu, kontsortzio-erakundearen idazkariak edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren Araubide Juridikoko zuzendariak egiaztatuta betiere.

3. Kontsortzioko kide den entitate bakoitza, Kontsortzioa osatzen duten entitateek izendatutako hiru pertsonak ordezkariak izango dute; eta entitate bakoitzak, hasieran behintzat, honako eskala honetan adierazitako boto kopurua bereganatuko du.

Kontsortzio-erakundeak Entidades consorciadas	Erakundearen ordezkariak Representación de la entidad (%)	Ordezkariei esleitutako botoak Votos atribuidos a los representantes		
		1. zenbakia Núm 1	2. zenbakia Núm 2	3. zenbakia Núm 3
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa	33	11,00	11,00	11,00
San Markosko Udal Mankomunitatea Mancomunidad Municipal de San Marcos	29	9,8	9,6	9,6
Debarreneko Eskualdeko Mankomunitatea/Mancomunidad Comarcal de Debarrena	7	2,4	2,3	2,3
Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea Mancomunidad de Servicios de Txingudi	7	2,4	2,3	2,3



Sasietako Mankomunitatea /Mancomunidad de Sasieta	6	2,00	2,00	2,00
Debagoieneko Mankomunitatea Mancomunidad de Debagoiena	6	2,00	2,00	2,00
Tolosaldeko Mankomunitatea Mancomunidad de Tolosaldea	5	1,8	1,6	1,6
Urola Kostako Mankomunitatea Mancomunidad Urola Kosta	4	1,4	1,3	1,3
Urola Erdiko Mankomunitatea Mancomunidad Urola Medio	3	1,00	1,00	1,00
GUZIRA	100			

4. Kontsortzio-erakundeen hiru ordezkarietako bakoitzari botoen ehuneko bat dagokio, ordezkatzan duen erakundeari ematen zaion boto haztatuaren heren baten baliokidea zehazki. Kontsortzio erakunde bati atxikitako boto haztatuaren ehunekoa hirutan zatitu eta honen emaitza zenbaki osoa ez denean, zenbaki osoa eta lehen dezimala hartuko dira; beraz, ordezkari bakoitzaren boto haztatuak dezimal bakarra edukiko du. ordezkari horrela atxikitakoaren eta kontsortzio-erakundeari dagokion botoen ehunekoaren artean sortutako dezimal aldea kontsortzio-er.

5. Toki erakundeak berritzearen ondorioz kontsortzio-erakundeetako organoak eratu behar diren bakoitzean, mankomunitate bakoitzari atxikitako ordezkari-ehunekoa eguneratu egingo da. Ehuneko horrek ez du inolako dezimalik izango.

6. Toki erakundeen ordezkariak, agintaldia amaitu zaiela eta, bere karguak uzten dituztenean, Kontsortzioan duten postua mantenduko dute, harik eta kontsortzio-erakundeek ordezkari berriak izendatzen dituzten arte.”

(Oharrak:

1. Lehen aipatu ehunekoak ez daude eguneratuta (Hondakinen Kontsortzioak ez du bidali eguneraketa.
2. Taula hori erabiltzen da gaur egun baina extraofizialki.
3. Auzitegi Gorenak, 2014ko irailaren 26ko 3968/2014 epaiaren arabera, Txingudi Mankomunitatea Kontsortzioaren barruan dago).

PROPOSAMENA

LEHENGOA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrerako hiru kide hauek eta horien ordezkoak izendatzea:

- Joanes Amenabar Altuna J.
- Mari Carmen Arregi Agirre A.
- Asier Altuna Epelde J.



BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Lehendakariari horren berri ematea.

Azpeitian, 2023ko irailaren 15ean.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK
Joanes Amenabar Altuna

Ordezkoak hurrengo batzordean hautatuko direla aipatzen da.

Azkoitia andereak bere desadostasuna agertzen du proposatutako kideekin. Azken bi agintaldietan, proposamena Bildu alderdiko 2 kide eta EAJko 1 izan da. Oraingoan 3 kideak Bildukoak dira, eta ez zaio egokia iruditzen, eta GHK-n ordezkaria edukitzea bidezkoa ikusten du. Beraz irizpide aldaketarekin bere desadostasuna agertzen du, eta kontrako bota emango duela adierazi.

Etxaniz jaunak abstentzioa iragartzen du, ez bai daki zergatik eman den irizpide aldaketa.

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 54,80

Aizarnazabalgo ordezkariak (%1,59): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Ana Isabel Lizarralde A. (%0,79)

Azkoitiko ordezkariak (%11,91): Asier Altuna J. (%11,91),

Azpeitiko ordezkariak (%31,06): Joanes Amenabar Altuna J. (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (%15,53)

Beizamako ordezkariak (%0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Eneko Oregi Ziurraga J. (0,14).

Bidania-Goiatzeko ordezkariak (% 1,08): Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54), Jose Migel Mendizabal Arnaez J. (%0,54)

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi Barandiaran A. (0,58)

Zestoako ordezkariak (%7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (%3,84),



Kontra: % 32,40

Azkoitiko ordezkaria (%11,91): Ana Azkoitia Urteaga A. (%11,91),
Azpeitiko ordezkaria (%15,53): Jabier Altuna Larrañaga J. (%15,53).
Bidania-Goiatzeko ordezkaria (%0,54): Josune Landa Gurruchaga A. (%0,54).
Errezilgo ordezkaria (%0,58): Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (%0,58).
Zestoako ordezkaria (%3,84): Garikoitz Mendizabal Etxeberria J. (3,84).

Abstentzioa: % 11,90

Azkoitiko ordezkaria (%11,90): Jose Joakin Etxaniz J. (%11,90).

Bertaratutakoek, gehiengoz, honakoa onartu dute:

LEHENGOA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrerako hiru kide hauek eta horien ordezekoak izendatzea:

- Joanes Amenabar Altuna J.
- Mari Carmen Arregi Agirre A.
- Asier Altuna Epelde J.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Lehendakariari horren berri ematea.

6. Kontuen Batzorde Bereziaren osaketa onestea.

Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena, Urola Erdiko Mankomunitateko Kontuen Batzorde Berezia osatzekoa eta kideak izendatzekoa.

IKUSIRIK

Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Eregelamenduak, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, 38.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatza eratzeko batzarra egin eta hogeita hamar eguneko epean ohiko edo ezohiko bilkura deitu behar da, besteak beste informazio batzorde iraunkorrak sortzeko eta horien osaera erabakitzeko.

Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116. Atalak xedatutakoaren arabera:

“Toki-erakundeko kontuen batzorde bereziaren irizpenera jarriko dira urteko kontuak ekainaren 1a baino lehen, eta korporazioa osatzen duten talde politiko guztien kideez osatuko da batzorde hori. Kontuak, osoko bilkurari onartzeko aurkeztu baino lehen, jendaurrean jarriko dira aztergai, erreklamazioak, eragozpenak eta oharrak egin ahal izateko. Guztiarekin ere, ekonomia-kudeaketan eta onartutako kontuetan araugabekeriarik ote dagoen salatu ahal izango zaio Kontu Auzitegiari.”



AINZAT HARTURIK

I. Eskumena

Erabaki hau onartzeko eskumena du Batzar Nagusiak, estatutuen 11.1 e) atalak xedatutakoaren arabera.

Erabaki hau hartzeko bozkatzeko eskubidea duten kideen botoen gehiengo osoa (%51) beharko da. Kasu horietan, gainera, Mankomunitateko udalerrien gehiengo osoaren (4) aldeko botoa beharko da.

II. Araubidea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116. atala

PROPOSAMENA:

LEHENGOA. Urola Erdiko Mankomunitateko Kontuen Batzorde Berezia osatzea eta ondorengo kideak izendatzea:

Presidentea:

- Joanes Amenabar Altuna J (ordezkoa: Azpeitiko tokiko ordezkaria) %46,59

Batzordekideak:

Aizarnazabalgo ordezkaria: %2,38
Azkoitiko ordezkaria: %35,72
Beizamako ordezkaria: %0,42
Bidania Goiatzeko ordezkaria: %1,62
Errezilgo ordezkaria: %1,74
Zestoako ordezkaria: %11,53

Idazkaria: Idazkari Kontu hartzailea

Bozketaren ehunekoa izango da udalerrri bakoitzari dagokiona.
Udal bakoitzak izendatuko du kidea eta horren ordezkoa.

BIGARRENA. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Azpeitian, 2023ko irailaren 15ean.



LEHENDAKARIAK
Joanes Amenabar Altuna

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 99,10

Aizarnazabalgo ordezkariak (%1,59): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Ana Isabel Lizarralde A. (%0,79)

Azkoitiko ordezkariak (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (%11,91), Asier Altuna J. (%11,91), Jose Joakin Etxaniz J. (%11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (%15,53) Jabier Altuna Larrañaga J. (%15,53).

Beizamako ordezkariak (%0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Eneko Oregi Ziurraga J. (0,14).

Bidania-Goiatzeko ordezkariak (% 1,62): Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54), Jose Migel Mendizabal Arnaez J. (%0,54) Josune Landa Gurruchaga A. (%0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,74): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi Barandiaran A. (0,58) Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (%0,58).

Zestoako ordezkariak (%11,53): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (%3,84), Garikoitz Mendizabal Etxeberria J. (3,84).

Kontra: % 0,00

Abstentzioa: % 0,00

Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:

LEHENGOA. Urola Erdiko Mankomunitateko Kontuen Batzorde Berezia osatzea eta ondorengo kideak izendatzea:

Presidentea:

- Joanes Amenabar Altuna J (ordezkoa: Azpeitiko tokiko ordezkaria) %46,59

Batzordekideak:

Aizarnazabalgo ordezkaria: %2,38



Azkoitiko ordezkaria: %35,72
Beizamako ordezkaria: %0,42
Bidania Goiatzeko ordezkaria: %1,62
Errezilgo ordezkaria: %1,74
Zestoako ordezkaria: %11,53

Idazkaria: Idazkari Kontu hartzailea

Bozketaren ehunekoa izango da udalerrri bakoitzari dagokiona.
Udal bakoitzak izendatuko du kidea eta horren ordezkoa.

BIGARRENA. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Urola Erdiko Mankomunitatearen Lehendakariak amaiera eman dio Batzar Nagusiari arratsaldeko 18:45ean. Eta horren guztiaren fede ematen dut idazkari kontu-hartzailea naizen honek.

ONTZAT EMANA
**UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN
LEHENDAKARIAK**

**IDAZKARI
KONTU-HARTZAILEAK**

Joanes Amenbar Altuna

Olatz Eizagirre Orbegozo

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**



Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://ust.gipuzkoa.eus?De=59910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://ust.gipuzkoa.eus?De=59910>

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU5cfa77b4-81cd-43de-a37a-7a230a6b78cd**



Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://ust.gipuzkoa.eus?De=59910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://ust.gipuzkoa.eus?De=59910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023AKTA0009-2023.09.21 akta zirriborroa onestea/2023.09.21 Aprobación del